

IRAGARKIA, turismoaren alorreko zehapen-espedientearen instrukzio-egileak 2004ko irailaren 3an egindako ebazpen-proposamena Aurora Campelo Logilde andreari jakinaraztekoa. 81

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

2442/04 FORU AGINDUA, azaroaren 30ekoa, Ingurumen Sailarena, «Uribe Kostako sare nagusitik Maruri eta Gatikarako ur-hornikuntzako obrak» proiektuari buruzko jabetza kentzeko espedienteari hasiera eman eta proiektu horren burutzapenak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurreko informazioaren pean jartzea ebatzi duena. 83

SESTAOKO UDALA

IRAGARKIA, Sestaoko Udalarena, Sestaoko Irisgarritasun Planaren behin betiko onarpenari buruzkoa. 96

ANUNCIO por el que se notifica a Dña. Aurora Campelo Logilde la Propuesta de Resolución de fecha 3 de septiembre de 2004, de la Instructora del expediente sancionador en materia de turismo n.º G002/04-T. 81

DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

ORDEN FORAL n.º 2442/04, de 30 de noviembre, del Departamento de Medio Ambiente, por la que se resuelve iniciar el expediente expropiatorio y someter a información pública la relación de bienes y derechos afectados por la ejecución del Proyecto de «Obras de abastecimiento de agua a Maruri y Gatika desde la arteria de Uribe-Kosta». 83

AYUNTAMIENTO DE SESTAO

ANUNCIO del Ayuntamiento de Sestao relativo a la aprobación definitiva del Plan de Accesibilidad de Sestao. 96

Xedapen Orokorrak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

17

AGINDUA, 2004ko abenduaren 3koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Bigarren hezkuntzako ikasketak erdi-mailako musika- eta dantza-irakaskuntza artistikoekin batera egin ahal izateko neurriak ezartzen dituena.

Erregimen orokorreko irakaskuntzen curriculumean sartzen diren eta ikasle guztientzat funtsezkotzat jotzen diren derrigorrezko ikasgaiekin batera, hezkuntza-sistemak dibertsifikatze bat aurreikusi du Bigarren Hezkuntzan, ikasle bakoitzak bere interesen arabera hainbat gairen artean aukeratu ahal izateko. Hala dago ezarrita DBHren curriculumaz ezartzen duen 213/1994 Dekretuaren 7. artikuluan eta Batxilergoaren araudia ezartzen duen 97/1997 Dekretuaren 10. artikuluan. Hurrenez hurren, artikulua horien 4. eta 3. paragrafoetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari ematen zaio aukerako ikasgaiak ezarri eta arautzeko ardurara.

Badira pertsona batzuk bigarren hezkuntza eta erregimen bereziko irakaskuntzetako erdi-mailako ikasketak, zehatzago musika eta dantza, aldi batera egiten di-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

17

ORDEN de 3 de diciembre de 2004, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se establecen medidas para facilitar la simultaneidad de los estudios de Educación Secundaria con las Enseñanzas Artísticas de música y danza de grado medio.

Junto a las asignaturas obligatorias que se incluyen en el currículo de las enseñanzas de régimen general, y que se consideran básicas para todo el alumnado, el sistema educativo prevé en la Educación Secundaria una diversificación a través de unos márgenes de optatividad que permitan acoger los intereses diferenciados de cada alumno/a, a través de distintas materias. Así se establece en el artículo 7 del Decreto 213/1994, por el que se establece el currículo de la ESO, y artículo 10 del Decreto 97/1997, por el que se establece la regulación del Bachillerato. En los párrafos 4.º y 3.º de dichos artículos, respectivamente, se encomienda al Departamento de Educación, Universidades e Investigación la regulación y el establecimiento de las materias optativas.

Hay personas que cursan simultáneamente las enseñanzas regladas de secundaria y otras del grado medio de las enseñanzas de régimen especial, particularmen-

tuztenak, eta, ondorioz, pertsona horien interesak gartzeko ikasketa horietan gainjartze edo bikoizte bat gertatzen da. Musika- eta Dantza-ikasketa horien oinarriko alderdiak, hurrenez hurren, 756/1992 eta 1254/1997 errege dekretuetan daude jasota; gure eskumen-eremuan Musikari dagokiona, berriz, 288/1992 Dekretuan.

Gainjartze hori, era berean, derrigorrezko beste ikasgai batzuetan gertatzen da, Musikan edo Heziketa Fisikoan esaterako, eta hala jasotzen da 2001eko urtarrilaren 2ko Aginduan, zeinaren bidez Musika eta Dantza erregimen bereziko irakaskuntzen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren arlo jakin batzuen arteko baliozkotzeak ezartzen diren.

Eskola-ordu gehiegi ez izatearren eta ikasleek Musika- eta Dantza-ikasketak eta erregimen orokorrekoak aldi berean egin ahal izateko, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak (LOGSE) eskumena ematen die hezkuntza-administrazioei —antolamenduari eta ordenazioari dagokienez— ikasketa horien arteko koordinazioa neurriak, baliozkotzeak barne, hartzeko.

Ondorioz, lehen lerrokadan aipatutako Dekretuetan ezarritakoaren arabera, eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren eta Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoaren txostenak ikusita, honako hau

XEDATU DUT:

1. *artikulua*.— Helburua eta aplikazio-eremua.

1.— Agindu honen helburua ondokoa da: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasketak eta erdi-mailako Musika- eta Dantza-ikasketak aldi berean egin ahal izateko neurriak ezartzea.

2.— Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako ikasleei aplikatuko zaie agindu hau, baldin eta aldi berean erregimen bereziko Musika- eta Dantza-ikasketak egiten ari badira, eta aplikatzeko eskatzen badute.

2. *artikulua*.— Derrigorrezko ikasgaiak baliozkotzea.

1.— Ziklo bakoitzerako eta, hala denean, maila bakoitzerako I. eranskinean ezartzen diren erregimen bereziko erdi-mailako Musika-ikasketetako gaiak baliozkotuko dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Musika arloa.

2.— Ziklo bakoitzerako eta, hala denean, maila bakoitzerako II. eranskinean ezartzen diren erregimen bereziko erdi-mailako Dantza-ikasketetako gaiak baliozkotuko dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Musika arloa.

3.— Ziklo bakoitzerako eta, hala denean, maila bakoitzerako III. eranskinean ezartzen diren erregimen be-

te música y danza, con lo que se produce un solapamiento o duplicación en las enseñanzas tendentes al desarrollo de esos particulares intereses que cada cual elige. Dichas enseñanzas de Música y Danza están recogidas en sus aspectos básicos por los Reales Decretos 756/1992 y 1254/1997, respectivamente, y en el Decreto 288/1992 en lo que se refiere a Música en nuestro ámbito de competencia.

Además también se produce este solapamiento en otras materias obligatorias, como Música o Educación Física, como se recoge en la «Orden de 2 de enero de 2001 por la que se establecen convalidaciones entre las enseñanzas de régimen especial de Música y de Danza y determinadas áreas de Educación Secundaria Obligatoria».

Con objeto de evitar una sobrecarga lectiva y facilitar al alumnado la posibilidad de cursar simultáneamente las Enseñanzas de Música y Danza y las de régimen general, el artículo 41 de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema educativo (LOGSE), habilita a las administraciones educativas para adoptar medidas que pueden ser de coordinación respecto a la organización y ordenación académica de las mismas, incluidas las convalidaciones.

Por ello, de acuerdo con lo dispuesto en los Decretos citados en el primer párrafo, y vistos los informes emitidos por el Consejo Escolar de Euskadi y la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto y ámbito de aplicación.

1.— Es objeto de esta Orden establecer medidas para facilitar la compatibilidad de los estudios de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato con el grado medio de las enseñanzas de Régimen Especial de Música y de Danza.

2.— Esta Orden se aplicará al alumnado de Educación Secundaria de centros de la Comunidad Autónoma del País Vasco que realice simultáneamente estudios de enseñanzas artísticas de régimen especial de Música y de Danza, siempre que lo solicite.

Artículo 2.— Convalidaciones de materias obligatorias.

1.— El área de Música de la Educación Secundaria Obligatoria será convalidada por las asignaturas del grado medio de las enseñanzas de régimen especial de Música que para cada ciclo y, en su caso, curso se establecen en el Anexo I.

2.— El área de Música de la Educación Secundaria Obligatoria será convalidada por las asignaturas del grado medio de las enseñanzas de régimen especial de Danza que para cada ciclo y, en su caso, curso se establecen en el Anexo II.

3.— El área de Educación Física de la Educación Secundaria Obligatoria será convalidada por las asignatu-

reziko erdi-mailako Dantza-ikasketetako gaiak baliozkotuko dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Heziketa Fisikoa arloa.

3. artikulua.– Aukerako ikasgaiak baliozkotzea.

1.– Erdi-mailako Musika- eta Dantza-irakaskuntza arautuetako ikasgaiak, hurrenez hurren, 288/1992 (abenduaren 16ko EHAA) eta 1254/1997 (irailaren 4ko BOE) dekretuetan jasota daudenak, aukerako ikasgaitzat hartuko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak eta Batxilergoak aukerako ikasgaietarako utzitako tartearen barruan, hala ezartzen baita, hurrenez hurren, OHOren curriculum onesten duen 213/1994 Dekretuaren 7.4 artikuluan eta Batxilergoaren curriculum onesten duen 180/1997 Dekretuaren 3.2 artikuluan.

2.– Hori dela-eta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko edozein mailatako aukerako ikasgai bat edo gehiago baliozkotuko zaizkio ikasleari erdi-mailako Musika- edo Dantza-ikasketen ikasgaien bidez, baldin eta egiaztatzen badu ikasgai-kopuru bat gaintitu duela. Ikasgai horien irakaskuntza-karga, behin agindu honen 2. artikuluan adierazitako ikasgai dagokiena kenduta, matrikulatuta dagoen Bigarren Hezkuntzako mailan baliozkotu nahi dituen aukerako ikasgaiena bestekoa edo handiagoa izango da.

4. artikulua.– Curriculum-egokitzapenak.

1.– Erregimen bereziko Musika- edo Dantza-ikasketak aldi berean egin eta goiko artikuluetako baliozkotzea ez duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen kasuan, egokitu ahal izango da Musikako eta Heziketa Fisikoko ikasgaien curriculum.

2.– Egokitze hori honela egingo da: hezkuntza-helburuak egokituz, eduki eta hezkuntza-helburu jakin batzuk kenduz edo sartuz, eta, ondorioz, ebaluatzeko irizpideak aldatuz. Erregimen bereziko ikasketetako errendimendua hobetzera eta Musika- edo Dantza-ikasketei lotutako alderdi anatomikoaren garapena zaindu edo konpentsatzera bideratuta dago egokitze hori.

3.– Ikaslea eskolatuta dagoen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxean arloaren ardura duen sailak egingo ditu egokitzapenak. Ikaslea ikasten ari den erregimen bereziko ikasketa-zentroaren aurretiko txostena beste ezer ez da derrigorrezkoa izango egokitzapenak egin ahal izateko. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak egoki irizten dionean, egokitzapen horien curriculumak argitaratu ahal izango ditu, eta balio orokorra eman.

5. artikulua.– Curriculumaren baliozkotze eta egokitzapenak egiteko prozedura.

1.– Lehen artikuluan adierazitako kasuan dagoen ikasleak edo legezko ordezkariak, baldin eta ikaslea adingabea bada, DBH ikasten ari den ikastetxeko zuzendaritzan eskatuko dute curriculumaren baliozkotzea

ras del grado medio de las enseñanzas de régimen especial de Danza que para cada ciclo y, en su caso, curso se establecen en el Anexo III.

Artículo 3.– Convalidación de las asignaturas optativas.

1.– Las asignaturas de las enseñanzas regladas de grado medio de música y danza, recogidas en el Decreto 288/1992 (BOPV de 16 de diciembre) y en el Real Decreto 1254/1997 (BOE de 4 de septiembre), respectivamente, tendrán la consideración de materias optativas del espacio de opcionalidad de Educación Secundaria Obligatoria y de Bachillerato, de acuerdo con lo establecido en los artículos 7.4 del Decreto 213/1994, por el que se establece el currículo de la ESO, y 3.2 del Decreto 180/1997, por el que se aprueba el currículo de Bachillerato, respectivamente.

2.– Por ello se concederá la convalidación de una o más materias optativas de cualquier curso de Educación Secundaria Obligatoria o del Bachillerato por asignaturas del grado medio de las enseñanzas de Música o Danza, a quien acredite haber superado un número de éstas cuya carga lectiva total, descontada la correspondiente a las materias indicadas en el artículo 2 de esta orden, iguale o supere la de las optativas que pretende convalidar del curso de Secundaria en el que se encuentre matriculado.

Artículo 4.– Adaptaciones curriculares.

1.– Para los alumnos/as de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato que cursen simultáneamente enseñanzas de régimen especial de Música o de Danza, y que no tengan la convalidación indicada en los artículos anteriores, podrá adaptarse el currículo de las asignaturas de Música y Educación Física.

2.– Estas adaptaciones consistirán en la adecuación de los objetivos educativos, la eliminación o inclusión de determinados contenidos y actividades educativas, y la consiguiente modificación de los criterios de evaluación. Y estarán dirigidas a mejorar su rendimiento en las enseñanzas de régimen especial, y/o a preservar o compensar el desarrollo de la parte anatómica relacionada con sus estudios de Música o Danza.

3.– Las adaptaciones curriculares serán elaboradas por el Departamento correspondiente del centro de Secundaria en que esté escolarizado. Para su elaboración será preceptivo exclusivamente el informe previo del centro de enseñanzas de régimen especial donde curse estudios el alumno. En aquellos casos que la Dirección de Innovación Educativa considere oportuno, podrá publicar los currículos de estas adaptaciones y darles validez general.

Artículo 5.– Procedimiento para las convalidaciones y adaptaciones curriculares.

1.– El alumno interesado que se encuentre en el supuesto contemplado en el artículo 1, o sus representantes legales en el caso de ser menor de edad, solicitará la convalidación o adaptación curricular a la Dirección del

edo egokitzapena, dagokion ikasturteko irailaren 30a baino lehen. Horretarako, Musika- edo Dantza-ikaskek gainditu dituela edo ikasketak egiteko matrikula egin duela adierazteko ziurtagiria aurkeztu beharko du, bere egoera zein den. Ziurtagiria erdi-mailako Musika- edo Dantza-ikaskek egiteko Musika- edo Dantza-Kontserbatorioak edo baimendutako musika-zentroak egin beharko du.

Ikastetxe pribatuetako ikasleen kasuan, zentroko zuzendaritzak eskabidea bidaliko dio atxikitako dagoen herri ikastetxeko zuzendaritzari edo, atxikitako ez dauden ikastetxeen kasuan, Pedagogia Berrikuntzako Burutzari, urriaren 10a baino lehen.

2.– Herri ikastetxeetako ikasle zein atxikitako ikastetxe pribatuetako ikasleen kasuan, herri ikastetxeko zuzendariak emango du curriculumaren baliozkotzea edo egokitzapena, azaroaren 1a baino lehen; atxiki gabeko ikastetxe pribatuen kasuan, berriz, Pedagogia Berrikuntzako lurraldeburuak emango du. Kasu bietan, agindu honetan adierazitako irizpideak erabiliko dira ebazpena emateko. Ezarritako epean ebazpena ematen ez bada, baliozkotzea edo egokitzapena ukatutzat joko da, ebazpen adierazia eman behar bada ere. Eskatutako baliozkotze eta egokitzapenei buruzko informazioa azaroaren 15a baino lehen bidali beharko zaio Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari, Zuzendaritza horrek berriaz ezarritako jarraibideen arabera.

3.– Dagozkion ikasgaietan matrikula egin dela egiaztatzen duen agiria aurkeztuta baino ez da emango behin-behineko baliozkotzea. Behin-behineko baliozkotze hori berez behin betiko bihurtuko da eskabidearen zioa zen Musika- edo Dantza-ikasgaia gainditzeko denean.

4.– Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak eskuragarri jarriko ditu ikasleentzako eskabideetarako eta ebazpen mota guztietarako orriak.

5.– Behar bezala justifikaturiko arrazoi bereziengatik epeak luzatu ahal izango ditu Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak.

6. artikulua.– Curriculumaren baliozkotze eta egokitzapenen ondorioak.

1.– Baliozkotze hori ikaslearen ikasketa espedientearen eta eskola liburuan jasoko da, idazkariak izenpetutako diligenzien bidez. Kalifikazio agirietan, aukerako gaietarako dagokien tokian honako hau idatziko da: «Honako honen bidez baliozkotuta: (erdi-mailako Musika- edo Dantza-ikaskek egiteko zikloa edo maila adierazi)». Ikasgaiaren kalifikazioa Musika- edo Dantza-ikasketetan lortutakoa izango da. Baldin eta aukerako ikasgai batzuk Musikako edo Dantzako baten bidez baliozkotzen badira, azken honetan lortutako kalifikazioa jarriko da guztietan. Curriculumaren egokitzapenen kasuan, kalifikazioetan DBHren edo Batxilergoaren ikasgaiari dagokion jasoko da, eta kalifikazioaren ostean ACI siglak adierazi beharko dira.

centro en el que curse la ESO, antes del 30 de septiembre del curso correspondiente. Para ello deberá presentar el certificado académico acreditativo de la superación de las Enseñanzas Musicales o de Danza o el de matriculación en las mismas, según su situación, expedido por el Conservatorio de Música, Danza o Centro autorizado de Grado Medio correspondiente.

En caso de alumnado de centros privados, la dirección del mismo dará traslado de la solicitud a la Dirección del Centro Público al que esté adscrito, o a la Jefatura Territorial de Renovación Pedagógica en caso de centros no adscritos, antes de 10 de octubre.

2.– La convalidación o adaptación curricular será concedida antes del 1 de noviembre por el Director del Centro Público, en el caso de alumnos de Centros Públicos o Centros Privados Adscritos, o por el Jefe Territorial de Renovación Pedagógica, en el caso de alumnos de Centros Privados no Adscritos, que resolverán aplicando los criterios señalados en esta Orden. La no concesión en el plazo indicado significa la denegación de la misma, sin perjuicio de la obligación de Resolución expresa. Antes del 15 de noviembre se remitirá a la Dirección de Innovación Educativa información sobre las convalidaciones y adaptaciones curriculares solicitadas, de acuerdo con las instrucciones que el efecto disponga dicha Dirección.

3.– Se concederá la convalidación provisional en caso de presentar únicamente el certificado de matriculación en las materias correspondientes. Esta convalidación provisional se convertirá en definitiva automáticamente al presentar la calificación positiva de la materia de Música o de Danza que motivó la solicitud.

4.– La dirección de Innovación Educativa facilitará los modelos correspondientes para las solicitudes del alumnado y para los distintos tipos de resoluciones.

5.– Por motivos excepcionales, debidamente justificados, la Dirección de Innovación Educativa podrá ampliar los plazos indicados.

Artículo 6.– Efectos de las convalidaciones y adaptaciones curriculares.

1.– De las convalidaciones definitivas quedará constancia en el expediente académico personal y en el Libro de Escolaridad mediante las correspondientes diligencias firmadas por el secretario. En las actas de calificación, en la casilla correspondiente a las materias optativas, figurará la expresión: «Convalidada(s) por el (expresión del ciclo o curso de que se trate) de Grado Medio de Música (o Danza)». Como calificación de la materia se hará constar la misma obtenida en las enseñanzas de Música o Danza. En el caso de varias materias optativas que se convaliden en base a una de Música o Danza, la calificación de esta se reflejará en cada una de las optativas. En el caso de adaptaciones curriculares, en las calificaciones constará la correspondiente a la propia materia de ESO o Bachillerato, y deberá figurar tras la calificación las siglas ACI.

2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Musikako eta Dantzako ikastetxeek beharrezkoak diren koordinazio eta jarraipen neurri guztiak hartuko dituzte, Agindu honetan araututako baliozkotzeak zein egokitzapenak bete daitezzen. Aurreko ondorioetarako, koordinazioa errazteko neurriak ezarri ahal izango ditu Hezkuntza sailburuordeak.

3.– Agindu honetan ezarritakoaren arabera baliozkotutako DBHko ikasgaietako eskoletara joatetik salbuetsita geratuko da ikaslea. Aitzitik, curriculumaren egokitzapenen kasuan, ikasleak joan beharko du ikasgaietako eskola guztietara.

4.– Musika-ikasketetako gaiak gainditu ezean eta, beraz, egokitzapenak aplikatu ezin badira, ikasleak behartuta egongo dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko arlo edo ikasgaiak ikastera, eta ebaluazio positiboa izango dute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1997ko urriaren 27ko Agindua indargabetuta geratzen da. Agindu horren bidez, musika-ikasketak eta araubide orokorrekoak batera egin ahal izateko modua eskainiko da Musikako erdi-mailako lehen bi zikloetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, urriaren 27ko 288/1992 Dekretuak ezarritakoari jarraituz.

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari ahalmena ematen zaio agindu hau aplikatzeko behar diren jarraibide guztiak emateko.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik izango du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko abenduaren 3a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

2.– Los centros de Educación Secundaria y los de Música y de Danza establecerán las medidas de coordinación y seguimiento precisas para el cumplimiento de las convalidaciones y adaptaciones curriculares que se regulan en esta Orden. A estos efectos el viceconsejero de Educación podrá establecer las medidas oportunas que faciliten esta coordinación.

3.– El alumno/a quedará exento de asistir a las clases de las materias de ESO que le sean convalidadas en base a lo dispuesto en esta Orden. Por el contrario, quienes tengan una adaptación curricular deberá asistir a todas las clases de la materia correspondiente.

4.– En caso de que no se superen las asignaturas de las enseñanzas de Música y de que, por tanto, no sea posible aplicar las citadas convalidaciones, los alumnos estarán obligados a cursar con evaluación positiva las áreas o materias dispensadas de la Educación Secundaria Obligatoria o de Bachillerato.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Se deroga la Orden de 27 de octubre de 1997, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se desarrollan las medidas tendentes a facilitar la simultaneidad de los estudios de Música y del régimen general contemplada en el Decreto 288/1992, de 27 de octubre, en lo referido a los dos primeros ciclos de Grado Medio de Música y a la Educación Secundaria Obligatoria.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se autoriza a la Dirección de Innovación Educativa para dictar aquellas instrucciones que sean necesarias para la aplicación de la presente Orden.

Segunda.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de diciembre de 2004.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

I. ERANSKINA

Erregimen bereziko irakaskuntza artistikoetako Musika-ikasketen bidez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Musika ikasgaiaren baliozkotzeak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak	Erregimen bereziko irakaskuntza artistikoetak o erdi-mailako musika-ikasketetako gaia
1. eta 2. mailako Musika	Musika-tresna edo Kantuko 1.a
3. mailako Musika	Musika-tresna edo Kantuko 2.a
4. mailako Musika	Musika-tresna edo Kantuko 3.a

II. ERANSKINA

Erregimen bereziko irakaskuntza artistikoetako Dantza-ikasketen bidez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Musika ikasgaiaren baliozkotzeak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak	Erregimen bereziko irakaskuntza artistikoetako erdi-mailako Dantza-ikasketetako gaia
1. eta 2. mailako Musika	Musikako 1.a
3. mailako Musika	Musikako 2.a
4. mailako Musika	Musikako 3.a

III. ERANSKINA

Erregimen bereziko irakaskuntza artistikoetako Dantza-ikasketen bidez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Heziketa Fisikoa ikasgaiaren baliozkotzeak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak	Erregimen bereziko irakaskuntza artistikoetako erdi-mailako Dantza-ikasketetako gaia
1. eta 2. mailako Hezkuntza Fisikoa	Dantza Klasikoko 1.a
3. mailako Hezkuntza Fisikoa	Dantza Klasikoko 2.a
4. mailako Hezkuntza Fisikoa	Dantza Klasikoko 3.a

ANEXO I

Convalidaciones de la asignatura de Música de la Educación Secundaria Obligatoria por asignaturas de las enseñanzas artísticas de régimen especial de Música

<i>Asignaturas de Educación Secundaria Obligatoria</i>	<i>Asignatura del ciclo medio de enseñanzas artísticas de régimen especial de Música</i>
<i>Música de 1.º y 2.º</i>	<i>1.º de Instrumento o de Canto</i>
<i>Música de 3.º</i>	<i>2.º de Instrumento o de Canto</i>
<i>Música de 4.º</i>	<i>3.º de Instrumento o de Canto</i>

ANEXO II

Convalidaciones de la asignatura de Música de la Educación Secundaria Obligatoria por asignaturas de las enseñanzas artísticas de régimen especial de Danza

<i>Asignaturas de Educación Secundaria Obligatoria</i>	<i>Asignatura del ciclo medio de enseñanzas artísticas de régimen especial de Danza</i>
<i>Música de 1.º y 2.º</i>	<i>1.º de Música</i>
<i>Música de 3.º</i>	<i>2.º de Música</i>
<i>Música de 4.º</i>	<i>3.º de Música</i>

ANEXO III

Convalidaciones de la asignatura de Educación Física de la Educación Secundaria Obligatoria por asignaturas de las enseñanzas artísticas de régimen especial de Danza

<i>Asignaturas de Educación Secundaria Obligatoria</i>	<i>Asignatura del ciclo medio de enseñanzas artísticas de régimen especial de Danza</i>
<i>Educación Física de 1.º y 2.º</i>	<i>1.º de Danza Clásica</i>
<i>Educación Física de 3.º</i>	<i>2.º de Danza Clásica</i>
<i>Educación Física de 4.º</i>	<i>3.º de Danza Clásica</i>

Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

18

AGINDUA, 2004ko azaroaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, ondoko Agindu honen hutsak zuzentzeko dena: «Agindua, 2004ko urriaren 15ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoetako praktiketako funtzionario izendatzen dituen 2002ko azaroaren 8ko Aginduaren bidez deitutako hautatze-prozesuak gainditu zituzten izangaiak, praktika-aldia egitea atzeratu zutenak».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuak 24.2.b artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisio mate-

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

18

ORDEN de 30 de noviembre de 2004, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se corrigen errores de la Orden de 15 de octubre de 2004, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se nombran funcionarios/as en prácticas del Cuerpo de Profesores/as Técnicos/as de Formación Profesional y Cuerpo de Profesores/as de Enseñanza Secundaria a los/las aspirantes que superaron los procesos selectivos convocados por Orden de 8 de noviembre de 2002 y que habían aplazado la realización del período de prácticas.

El artículo 24.2.b del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los errores u omisiones materiales que no se deduzcan